Basajaun eta Basandere

Basajaunen eta Basandere oihanaren bihotz-bihotzean bizi dira; noizbehinka, haitzuloetan. Abereak babesten dituzte. Ekaitzen bat hurbiltzen denean, mendian oihuka hasten dira, artzainek ganadua aterpera eraman dezaten. Basajaun artalde baten inguruan dabilenean, han ez da otsorik sartuko. Artalde guztia zintzarria jotzen hasten bada, Basajaun bertan den seinale. Orduan, artzaina lasai asko joan daiteke lotara.
Basajaunek eta Basanderek giza itxura dute, baina handiagoak dira, eta gorputza ilez beterik daukate. Belaunen pareraino iristen zaie ile luzea, aurpegia eta aurrealdea estaliz. Oin bat gizakiena bezalakoa dute; bestea, aldiz, biribila. Basandere sarritan leizezuloen sarreran egoten da, ilea orraztuz, laminen antzera. Biziki haserretzen da hura ere, orrazia lapurtuz gero.

Jendeak uste du Basajaun izaki gaizto bat dela, ikara ematen duela, izugarrizko indarra baitu, eta malgutasun harrigarria. Munduko lehen nekazaria izan zela ere esaten da, eta lehen erementaria, eta lehen errotaria, eta gizakiek hari lapurtu zizkiotela jakintza horiek guztiak; harengandik ikasi zuten nola egin zerra eta errotaren ardatza, eta nola landu metalak.

Basajaun, munduko lehen nekazaria, lehen erementaria eta lehen errotaria.

Basajaun y su esposa Basandere habitan en el seno de los bosques y a veces en el interior de las cuevas. Protegen a los rebaños y por eso, cuando se acerca una tormenta, gritan desde las montañas para que los pastores pongan sus animales a buen recaudo. Si Basajaun está cerca, todo el rebaño hace sonar sus cencerros. Ningún lobo se acercará y el pastor podrá retirarse a dormir tranquilamente.
Ambos, Basajaun y Basandere, tienen apariencia humana, pero son mucho más grandes y tienen el cuerpo y la cara cubiertos de un pelo largo que les llega hasta las rodillas. Uno de sus pies es semejante al de los humanos, el otro es redondo. A menudo Basandere se sienta a la entrada de la cueva y peina su largo cabello, al estilo de las lamias. Como ellas, se enfurece si alguien roba su peine.
La fuerza descomunal y la agilidad increíble de Basajaun han hecho que muchos le tengan miedo y crean que es un ser maligno. Se dice que fue el primer agricultor del mundo, el primer herrero, el primer molinero... Se cree que los humanos le arrebataron todas esas técnicas y que aprendieron de él a fabricar los ejes de los molinos, las sierras y otras herramientas de metal.
Basajaun, primer agricultor, primer herrero y primer molinero del mundo.